

BISITAK ETA IBILALDIAK

[Dos mujeres cuentan](#)

Nafarroako Museoa, ekitaldi aretoa

Astelehena / 19.00etan

“Dos mujeres cuentan” antzerki-lanaren antzespina

Sarrera libre, leku guztiak bete arte.

[Irakasleak prestatzeko ikustaldia](#)

Jorge Oteiza Fundazio Museoa

Asteazkena / 17.30etan

Ikustaldi-lantegia Oteiza Museoko Didaktika arduradun Aitziber Urtasunekin.

Erakusketarako ibilaldi gidatua, Mendizabalen obraren eta obra oteitzarraz egiten duen berridazketaren inguruko gogoetarako gunetzat harturik.

Aurrez izena eman behar da didactica@museoteiza.org helbidean.

[Klaustroko lanak bisitatzea](#)

Igandea / 10:00, 11:00, 12:00etan

Iruñeko katedrala

Lanean ari dira bisita egiten den bitartean, eta, horregatik, 15 pertsona gehienez hartuko ditu txanda bakoitzak. 14 urtetik gorakoak izan beharko dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan, obra-aldamio batera igo beharko baitute. Oinetako erosoak eramatea gomendatzen da, takoirik gabe betiere.

[Bisitak. Nafarroako Museoa](#)

Igandea / 12.30etan

Gaztelaniaz

Bisita gidatuak "Danok Taldea. 1966-1967. Modernitate osatugabea" erakusketara, Angel Macías eta Josune Ilundainen eskutik, gaztelaniaz zein euskaraz, egunero, 12:30ean, ondoko egutegiaren arabera:

ERAKUSKETAK

[Gamazadaren 125. urteurrena](#)

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.

2018/04/02 - 2018/05/31

La Gamazada izenez ezagututako gertakari historikoen hasieraren 125. mendeurrenaren haritik, haiei buruzko dokumentuen gaineko erakusketa, formatu txikikoa, antolatu du Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, hilean behingo erakusketa-programaren barruan.

“Gamazadaren 125. urteurrena” apiril eta maiatzean zehar egongo da ikusgai, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren egoitzan, 09:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera, eta 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, asteburu eta jaiegunetan.

[Makotu](#)

Jorge Oteiza Fundazio Museoa

Erakusketa. 2018ko martxoak 22 – ekainak 3

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Museo Sarea eta Eguesibarko Udala
Asier Mendizabal (Ordizia, 1973) artistak, azken urteotan, Jorge Oteizaren legaturako eta

haren eskultura-proiektuan sinbolikoa eraikitzeko modurako hurbilketa kritikoa proposatzen duen obra multzoa egin du. Horren bitartez zalantzan jartzen ditu modernitatearen amaieran eskultorikoa irudikatzeke mekanismoak.

[“Danok Taldea. 1966-1967”](#)

Nafarroako Museoa

2018/03/10 - 2018/05/27

Nafarroako Museoa “Danok Taldea. 1966-1967: Modernitate osatugabea” erakusketa eskainiko du, Nafarroako garai hartako arte-munduko 27 artistaren 40 lanez osatua. Danok taldearen bat izango ziren Nafarroako artisten lanek osatzen dute erakusketa hein handi batean: José Ulibarrena, Isabel Baquedano, Julio Martín Caro, José M.^a Ascunce, Gloria Ferrer, José Antonio Eslava, Xabier Morrás, Jesús Lasterra, César Muñoz Sola, Salvador Beunza, Juan Miguel Echeverría, Pedro Osés (zeinen obra bat erakusten den, Juan José Aquerretarekin elkarlanean egina), Eugenio Menaya, Narciso Rota, Miguel Echauri, Mariano Sinués eta Pedro Manterola.

[“Ikusgai egiten duen gaua”](#)

Huarte Zentroa

2018/03/24 - 2018/04/29

Rachel Labastie y Nicolás Delpratek Egulbatin garatutako egoitzaren amaierako erakusketa. Egoitza hau Euskadi, Akitania, Nafarroa euroeskualdearen baitan sortutako mugazgandiko elkarlanaren fruitua izan da.

HAURRENTZAKO AISIA

[Ongi etorri ipuinetara: Kamishibai](#)

Nafarroako Liburutegia. Haurren liburutegia

Asteazkena / 18:00etan.

Saioa ingelesez

Ipuin-kontalaria. Boz gorako irakurraldia

Sarrera: librea, aretoa bete arte.

Boluntarioekin egiten da jarduera.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez irakurriko dira ipuinak.

KONFERENTZIAK

[Euskal Eskolako taldeak](#)

Nafarroako Museoa

Astearte / 19.00etan

"Euskal Eskolako taldeak, abangoardia berantiar baten asmakizuna". Hitzaldia Fernando Golvano arte-kritikariaren eta erakusketa-komisarioaren eskutik.

“Danok Taldea. 1966-1967: Modernitate osatugabea”

[Maria Luisa Elio oroitz](#)

Barañaingo liburutegia

Osteguna / 18:30ean.

Izen berria liburutegiari, Maria Luisa Elio Barañaingo Liburutegi Publikoa. Oihane

Indakoetxea alkatea eta kulturako zinegotzia Ainhoa Oyaga bertan izango ditugu.

Osteguna / 19:00etan.

Maria Luisa Elio ospetsuaren inguruko hitzaldia emango du Eduardo Mateo Gambartek.

Ostirala / 20:00etan.

Poesia errezitaldia, musika lagun, “Versos de exilio y de nostalgia”, Nafar Idazleen Elkarteak eskainita.

[Ramana Maharshi: transparencia del ser](#)

Nafarroako Liburutegia. Proiektzio-aretoa

Astelehena / 18:00etan.

Zikloa: Espiritualtasunaren koloreak: tradizio espiritual desberdinetatik betetasunean bizitzeko jakinduria-gakoak aztertu nahi ditu programak.

Hizlaria: Javier Melloni

Sarrera librea, aretoa bete arte. Prezioa: doakoa

[Poesía femenina actual de Navarra en castellano](#)

Nafarroako Liburutegia. 1. solairuko aretoa

Asteartea / 19:00etan.

Hizlariak: Isabel Logroño (antologoa) eta Marta Porpetta (editorea)

Izenburua: “Poesía femenina actual de Navarra en castellano” liburuaren aurkezpena

Trini Lucea, Marina Aoiz, Socorro Latasa, Fátima Frutos eta Charo Fuentes poetak bertan egongo dira.

Sarrera: librea, aretoa bete arte. Prezioa: doakoa

KONTZERTUAK

[Piano-errezitaldia](#)

Musikaren Hiriko Fernando Remacha auditorioa

Osteguna / 19:30ean

Claude Debussyren mendeurrena (1862-1918).

Iruñeko Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionaleko ikasleek joko dute.

TAILERRAK

[Kartografia hedatua](#)

Huarte Zentroa

Ostiraletan 17:00etatik, 20:00etara.

Larunbata, igandea / 11:00etatik, 14:30era

Kartografia hedatua. Hiri [des]itxuratua

Maite Redondo, Mikel Irure

Dokumentatzen denbora bat eman eta Iruñearen lurralde fisikoaren hainbat mapeo egin eta gero, bi abiapuntu ezarri zituzten artistek, monumentu bat eta “historia anonimo” bat.

Haienezat, konfrontazio honetan, marruskadurak eta gatazkak sortzen dira, boterearen harrokeria eta “besteen” jazoerak ikusezin bihurtzea, urbanismoan eta espazio publikoan zehaztua. Bi kasuetan, haria, ildo nagusia, heriotza da.

[Jabetza intelektualaren eskubideei buruzko aholkularitza](#)

Huarte Arte Garaikideko Zentroa

Osteguna / 17.00etan

Egile-eskubideei eta bestelako ukiezinei buruzko aholkularitza juridikoa, Intangia elkartearen lankidetzan. Hilean behin eskaintzen da zerbitzua, ostegunarekin, 17:00etatik 20:00etara, Huarte Zentroan.

Edonola ere, hitzordua eskatu behar da aldez aurretik: info@intangia.es helbidean edo 948 32139 telefonoan.

[Tresna teknologikoak erabiliz proiektu artistikoak egiteko lantegia](#)

Huarte Zentroa

Ostirala / 15.30etan

Martxoa eta maiatza artean 8 ostiraletan Tresna teknologikoen bidez proiektu artistikoak aratzeko, artista eta ingeniariaren arteko elkarlanean eta ikerketan oinarritutako lantegia. MedialLab-Pradon garatutako elkarlanerako “Interactivos?” prototipatuan medialab-prado.es/interactivos, oinarritua dago bertako testuingurura eta baliabideetara egokitua baina teknologia eta sorkuntza prozesuen elkarlanerako izaera mantenduz.

[KBK Kontrabandistak](#)

Huarte Zentroa

Larunbata / 12.00etan

KBK – Kontrabandistak argitalpen proiektuak ikus-arteak eta kultura garaikidea ditu hizpide, mugaz gaindiko ikuspuntu batetik begiratuta. Muga, arte garaikidea, tokiko kultura eta izaera ditu ardatz eta pentsamendu kritiko, aske eta eraikitzailea sustatzen ditu. Ekimen hau Mugakidek bultzatua da, Bitamine Faktoria sormen eta kultura ekoizpen lantegiak eta Nekatoenea artisten egoitzak osatzen duten sareak.

ZINEMA

[Zirkuan istilua](#)

Nafarroako Filmoteka

Asteazkena / 20.00etan

Estokolmoko zirku finkoan girotzen du Jacques Tatik filma, ezustekoz beteriko maleta ireki eta zirkuaren aurpegi guztiz berry bat erakutsiz. Gazte eta gehienbat hippie zuzenduta, zirkuari eskeinitako omenaldia da film hau, horretarako hainbat tresna erabiliz. Zuzendaritza eta gidioa: Jacques Tati

[Azken epaia](#)

Nafarroako Filmoteka

Ostirala / 20.00etan

Paul Newmanen antzezpen onenetakoa da, Robert Redford eta Frank Sinatrak paperari uko egin ostean. Oscar-a irabaztera izendatua, aktore batek film batean egin dezakeen lan izugarria nabarmentzen da honetan.

American Film Institutuaren zerrenadan, Zinemarien Historia osatzen duten abokatutza dramen artean 4. postua duen filma da hau.

Zuzendaritza: Sidney Lumet.

[Roberto Bolaño. La batalla futura](#)

Nafarroako Filmoteka

Osteguna / 20:00etan

Hiru dokumentaletatik lehena da “Roberto Bolaño. La batalla futura”, eta Mexikon du erreferente nagusia. Idazleak lortu dituen ospea eta prestigioa ikusita, galdera mobilizatzaile

hau sortzen da: Nor da Roberto Bolaño? Lagun, kide eta senideekin izandako elkarrizketak dira. Gutxi ezagutzen dituzten idazlearen bizitzaren uneak ezagutuko ditugu. Gutunak irakurriz, pasadizoak kontatuz eta bere bizitzaren une bereziak berreskuratuz, egitura narratiboa ehuntzen da, hirurogeita hamarreko hamarkadako Bolañoenganaino, Mexikon, eramango gaituena. León aitak, Juan Pascoe lehen editoreak, infrarrealismoaren oraindik bizi diren sortzaileetako batzuek egilearen bizitzaren pasarte batzuk kontatuko dizkigute. Zuzendaritza, gidoia eta argazkiak: Ricardo House Corona